

'Trapu zaharrak' kantatuz

Iparragirrek herriko bati eskaini zion ▶ 5



Datozen urteetan berrikuntza ugari egiteko asmoa dute Berrobin

LANAK ▶ Eskola berria, bi plazak berritu, Kultur Etxea eta etxebizitzak egingo dira hurrengo urteetan ▶ 6



Berrobin etxe ugari ari dira egiten; biztanlegoa 600dik 900era igoko da laster. INIGO TERRADILLOS



IMANOL GARCIA

Alkartasuna elkartearen biltoki berria, inauguratuta

ANOETA ▶ Jende ugari bildu zen herriko agintariekin eta kanpoko ordezkariekin; hamabi urteko ibilbidea du elkarteak ▶ 4



Laserraren plazerra probatu

Esperientziadun adituen eskuetan jar zaitez eta zure azalaren leuntasunaz goza ezazu.

Shuyana, Depitotal sarearen parte da, bertan 200 depilazio zentru baino gehiago daude. www.depitotal.com

Orain Tolosan:

SHUYANA

Eskolapiotako Lorategiak, 3
20400 Tolosa • Tel.: 943.675.489

- Gizon-Emakume depilazioa •
- Aurpegi eta Gorputzekoa •
- Ilak sortutako infekzio arazoak •
- Diagnostiko informatizatua doan •
- Bakoitzari egokitutako finantziaketa •

Depitotal

FORMAKUNTZA ▶

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonak lanerako prestatzen

Tolosaldeko Eskualde Elkartearen eskutik, sukaldaritza ikastaroa ari dira egiten

IRATXE ETXEBESTE

«Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkartea buruko gaixotasunen bat duten pertsonen zuzendutako lanbide heziketa proiektu pilotu bat aurrera eramaten ari da, lan munduratzeko bitarteko bezala erabiliz, pertsona horien gizarteratzea lortzeko helburuarekin eta, era berean, ezgaituen diskriminazio sozialeko egoerak saihesteko». Horixe azaldu dio HITZARI Tolosaldeko Eskualde Elkartek.

Izan ere, heziketa prozesu horrek «trebezia eta ezagutzak lortzeko esparru bat sortzen du», eta horiek guztiak banaka bideratzen badira, ezgaituen kolektiboan «diskriminazio sozialeko egoerak hobetu egiten dira», antolatzaileek diotena araberara.

INEMeko bulegoetan ezgaitasunen bat duten pertsonen langabezi tasa beste populazioaren bikoitza dela ikusita, herritar horiei lan munduan sartzeko irtenbidea eman behar zaiela uste dute antolatzaileek, eta horretarako sortu dute proiektua. Gainera, «ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntza eskaera asko handitu da azken urteetan, eta pertsona horiek, heziketa bat eskuratzeko dutenean, lan munduan erazago integratzen dira».

Behar bezalako zerbitzua eskaintzeko, lan talde bat osatu dute proiektuaren sustatzaileek. Bertan parte hartzen dute Gipuzkoako Osasun Mentaleko zentroetako teknikariek, Gureak-eko kideek, Tolosaldeko INEMeko bulegoak eta Tolosaldeko Eskualdeko Elkarteko teknikariek. «Bideratu beharreko jarduerak sukaldaritza ikastaro bat da, arlo zehatz horrek bide-



Tolosaldeko Eskualde Elkartek antolatutako sukaldaritza ikastaroan hamalau lagun dira. HITZA

ragarri egiten dituelako lortutako ezagutzak segituan praktikan jartzea eta emaitzen objektibotasuna». Gainera, antolatzaileek diote sukaldaritza ikastaroaren bidez posible dela lan merkaturatzea sortzea bai babestutako enpleguko enpresetan bai enpresa normalizatuetan», eta eguneroko bizitzarako erabilpen praktikoa duela, «batzuk bakarrik bizi direlako edo banatutako etxebizitzetan bizi direlako eta beste batzuk adinean aurrera doazen senideekin bizi direlako».

Hamalau lagunek osatzen dute sukaldaritza ikastaroko taldea: 9 mutilak eta 5 neskek; 28 eta 48 urte bitartekoak, guztiak —gehienez 32-34 urte dituzte—. Ikastaroak 584 orduko iraupena du. Apirilaren 26an hasi zen, eta azaroaren 16an bukatuko da. Behin tailerrean heziketa teoriko-praktikoa bukatu eta gero, ikasleak enpresetara joango dira praktikak

egitera. Praktika horiek programan parte hartzen duten eragile ezberdinen artean koordinatuz egindako diseinu eta tutoretza orduak izango dituzte, eta Tolosaldeko Eskualde Elkartek hezitzaile bat jarriko du praktikak irauten duen denboraldian ikasleak laguntzaile gisa aritzeko.

Lan munduan sartzeko

«Ikastaro honen bitartez, ikasleek etorkizunerako, lan munduan sartzen direnerako, ohi-tura batzuk hartzea lortu nahi dugu. Horregatik, alde batetik sukaldaritzari buruzko eta lan munduan moldatzeko moduko ezagutzak ematen dizkiegu ikasleei, eta beste alde batetik, taldean bertan pertsonen arteko harremanak sustatu nahi ditugu, gaixo horiek sufrizten duten bakardadea arintzeko bidean lagungarri delako eta haien autoestima handitzeko

bitarteko gisa balio duelako». Era berean, ikastaroak irauten duen zortzi hilabete horietan ikasleen gaitasunak eta helburuak aztertzen ari dira proiektuaren sustatzaileak, eta baita haien sostengu eta laguntza beharrak hausnartzen ere, «etorkizuneko lanpostu batean haien guztiak lan munduratzeko plangintza baten bitartez aurrera eramateko».

Proiektu horrez gain, Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkartea langabeteen zuzendutako beste ikastaro batzuk ere ari da burutzen, besteak beste, iturgintza, sukaldaritza, garbiketa industrial, geriatría, lorezaintza eta eraikuntza arloetan. Tolosaldeko Eskualde Elkartek San Esteban auzoko 20. zenbakian du egoitza (San Esteban 20, 1.). Ikastaroen gainean informazio gehiago nahi izatera bertara joan daitezke herritarrek xehetasun eta argibide eske.

KULTUR ASTEA ▶

Haurrentzako ekitaldiak gaur, San Estebanen

Tonttor San Esteban Auzokide elkarrekin antolatutako Kultur Astearen baitan, haurrentzako ekitaldiak izango dira gaur, batez ere, egun osoan. 16:00etan Altxorraren bila jokoa egingo dute auzoan; 16:30ean haur jolasak izango dira; 18:00etan buruhandiek irtengo dute eta 19:00etan txokolata eskainiko dute antolatzaileek. Helduentzat mus txapelketa izango da 16:00etatik aurrera, eta gauerdian Atila y los Unos taldeak kontzertua eskainiko du. Musika emanaldiaren ostean DJ Jawatak jarungo du goizaldera arte.

XAKEA ▶

Xake Elkartek abiarazi du jada denboraldi berria

Tolosako Xake Elkartek abiarazi du jada 2004-2005 denboraldia, eta herritarrei gonbita egin nahi die elkarrekin goitza ikusi, eta gustuko izanez gero, bertara xakean jokatzera joateko. Plaza Berrian dago Xake Elkarteen egoitza —(lehen IMI zenaren lokaletan)—, eta bertako kideek diote elkarteko xake ekintzen parte hartu nahi dutenek bertara hurbildu besterik ez dutela. Igandero, 11:00etatik aurrera izango da goitza zabalik.

MUSIKA ▶

Euskal doinuak eta kanpokoak, Bandaren eskutik

Gaur 20:00etan Tolosaldeko Musika Bandak kontzertua eskainiko du plaza Berrian, Luis Mari Garcia Artetxeren zuzendaritzapean. Oraingo honetan estilo eta egile desberdinetako bost obra eskainiko ditu. Kontzertua hasteko Dimitri Shostakovitxen *March* interpretatuko dute. Ondoren, Giuseppe Rossini italiarriaren *Tancredi* obertura eskainiko dute. Musika klasikoaren munduan jarraituz, Albert W. Ketelbeyren *En un mercado persa* emango dute. Doinu berriagoetara jauzi eginez, H.Manciniren *Mancini Magic* eta Jose Francoren *Euskal Herriko kantak* eskainiz bukatuko dute. *March, Tancredi* eta *Mancini Magic* estreinaldiak dira.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

IGERIKETA ▶

Garda lakua, Carlos Peñaren hurrengo erronka

Gaur abiatuko da Italiara; hiru egunetan egin nahi du 55 kilometroko zeharkaldia, bizkarrez

L. MONTES

Nekaezina dela argi utzi du behin eta berriro Carlos Peña igerilari tolosarrak. Ekainean burutu zuen bere azkeneko abentura: Mexikoko Txapala lakua bizkarrez igerian zeharkatzea. Eta beste proiektu bati ekingo dio orain: Italiako Garda lakua da bere hurrengo erronka.

Italiako lakurik handiena da Garda: 389,98 kilometro koadroko hedadura du, 346 metroko gehieneko sakonera, eta 65 metroko garaiera. Gainera,

azkeneko inkestean emaitzen arabera, Europako lakurik garbiena da.

Italiako lau probintzia hartzen ditu Garda: Brescia, Mantua, Trento eta Verona; eta hiru eskualde: mendebaldera Lombardia, ekialdera Veneto, eta iparraldera Trentino Alto Adige. Herri txiki askok inguratzen dute lakua, eta Verona hiriko herritarrentzat elkargune eta atsendentoki izan da betidanik.

Carlos Peña gaur bertan da abiatzeko Italia aldera, eta lurralde hartara moldatu bezain laster ekingo dio erronka be-



Carlos Peña igerilaria. HITZA

rrinari. Igerilari tolosarrak aukeratu duen ibilbidea 55 kilometrokoa da, eta zati horretan 15,5 kilometroko gehieneko zabalera du lakuak. Riva de Garda izeneko herritik abiatuko da, eta Desenzano de Garda izeneko arteko bidea osatuko du, igerian, bizkarrez.

Dena ondo joanez gero, hiru egunetan egin nahi du zeharkaldia. Azkeneko proiektuetan bezala, eguraldia eta klima izango dira gainditu beharreko oztopoak eta mugak, baina tolosarra itzaropentsu eta gogotsu dago erronka honi ekiteko.

ZENBAIT DATU ▶



Izena. Garda lakua (Italia).

Hedadura. 389,98 kilometro koadro.

Gehieneko sakonera. 346 metro.

Altuera. 65 metro.

Peñaren zeharkaldia.

▶ Riva de Garda - Desenzano de Garda.

▶ 55 kilometro.

▶ 15,5 kilometroko gehieneko zabalera.

MUSIKA ▶

Kauta eta Sei urte taldeen kontzertua Bonberenean

L. MONTES

Bonberenearen egitarau oparoarekin jarraituz, gaur 22:30ean bi talderen kontzertua izango da bertan. Oraingo honetan Kauta eta Sei urte musika taldeen emanaldia entzuteko aukera izango da bertan.

Bestalde, ostegunean, hilak 21, EAKo Carlos Garaikoetxea eta Martin Aranbururen hitzaldia izango da Bonberenean.

ZESTA-PUNTA ▶

Beotibar elkarteko partidak izango dira

L. MONTES

Beotibar zesta-punta elkarteko jokalariek aurrera jarraitzen dute Gipuzkoako Elkarteen arteko Txapelketan. Atzo Santa Luzia pilotalekuan jokatu zuten donostiarren aurka eta gaur Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan jokatu dute. Kadete mailako Telleria eta San Sebastianek Donostia Jai Alai 1 bikotearen aurka jokatu dute 11:00etan.

RALLYA ▶

Ezenarro eta Tobar, 11. Llaneseko rallyan

«Bost aurrenekoen artean sailkatzea» zuten helburu, baina «eguraldi txarrak eta ausardia faltak» galarazi zuen hori



Ezenarro eta Tobarren C-2a, Llaneseko rallyan. HITZA

LEIRE MONTES

Denboraldiko hirugarren rallya korritu berri dute Xabier Ezenarro eta Joseba Tobar gidari eta kopilotu tolosarrak. Eta, aurreko bietan bezala, Asturias (Espainia) aldera jo dute berriz ere: Llanes herriko 28. Rallyan hartu dute parte.

Espainiako Txapelketarako baliagarria da Llaneseko rallya. 78 parte-hartzailek eman zioten hasiera, herriko portuan, proba garrantzitsu honi. Horietatik 20 ziren Citroën C-2 Sport Car-ak, Ezenarro eta Tobar bikotearena tartean.

Aurreko hitzordueta bezala, lasterketa honetarako ere eguraldiarekin mesfidati ziren tolosarrak. «Oso labainkorak eta zailak dira Asturiaseko errepideak. Horregatik da eguraldia gakoetako bat. Zeru eguzkitsuak iragarrita zeuden arren, larunbat goizean euria zen nagusi», azaldu dio HITZARI Tobar kopilotuak.

Oviedoko (Espainia) rallyan aurrean sailkatu eta gero, bikotearen asmoa argi zegoen: «Aurreneko tramotik gogor ekin eta goiko postuetan egotea». Bidean, baina, hainbat zailtasunekin egin zuten topo: «Lehendabiziko tramo —La

Torneria, 11,87 kilometro —is-tripu baten ondorioz neutralizatu eta gero, bigarrena —Carmen-Torre, 20,18 kilometro —korritu ondoren denborak ez ziren uste bezain onak, 13. baita Citroën C-2 mailako sailkapenean. Eguerdirako bi tramo hauek pasatu genituen berriro, eta ezin izan genuen posturik irabazi. Dena den, aurretik genituen oso denbora gutxira zeuden; bosgarrena, adibidez, 31 segundora».

Arratsaldean postu batzuk aurreratzen saiatu ziren, txapelketarako puntu baliagarrien bila; baina azkenean bi besterik ez zituzten hobetu, eta 11. amaitu zuten. «Rallya hasi aurretik gure asmoa berriro bost aurrenekoen artean sailkatzea zen. Baina, gogotsu ibili arren, agian Llanes inguruko errepide labainkorretan ausardi pixka bat falta izan zitzagun», adierazi du Ezenarrok.

Orain, Asturiaseko errepideak alde batera utzi eta Andaluziara begira jarri dira tolosarrak: urriaren 23an eta 24n Kordoban izango dira, eta azaroaren 6an eta 7an Malagan.



JOSEBA TOBAR
KOPILOTUA



XABIER EZENARRO
PILOTUA

«Oso labainkorak eta zailak dira Asturiaseko errepideak. Horregatik da eguraldia gakoetako bat»

«Gogotsu ibili arren, agian Llanes inguruko errepide labainkorretan ausardi pixka bat falta izan zitzagun»

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Gorosabel 40ean. 50.000.000 pta
Salgai (Tolosa). Pisu altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean. 49.000.000 pta.
Salgai (Tolosa). Baju komertzialak Bakale eta Nagusi kaletan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean. Pizzeria edo bokalegia jartzeko egokia.
Alokatzeko (Tolosa). Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin
Alokatzeko (Tolosa). Nafarroa Etorbidean garaje irekiak.
Alokatzeko (Tolosa). Garaje irekia Laramendi kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

ANOETA ▶ GIZARTEA

Alkartasuna elkarteko biltoki berria inauguratu dute

Jende ugari joan zen San Juan kalean kokatzen den jubilatuen egoitzaren bedeinkapenean parte hartzera



Iñaki Albiztur parrokoak bedeinkapena eman zion egoitza berriari gela nagusian. IMANOL GARCIA

IMANOL GARCIA

Alkartasuna jubilatuen elkar-
tearen egoitza berria inaugu-
ratu zuten atzo arratsaldean.
Iñaki Albiztur parrokoak be-
deinkapena eman zion, ondo-
an Fidel Azpiroz alkatea eta
Manuel Odriozola elkarteko le-
hendakaria zituelarik. Jende
gainezka zegoen biltokiko gela
nagusia. Ondoren merienda-
txoa hartu zuten bertara hur-
bildu zirenek. Horien artean,
jubilatuek elkarrekin ezberdin-
etako ordezkariak, besteak beste,
Miguel Rubio, Gipuzkoako Ju-
bilitatuen Elkarteko lehendaka-
ria.

Manuel Odriozolak hartu
zuen hitza bedeinkapenaren
ondoren eta egoitza berrira
azaldu zirenei eskerrak eman
eta gero, «hamabi urtetan izan-
dako ametsa errealitate bihur-
tu» dela adierazi zuen. Horre-
gatik, aurreko legealdian izan-

dako udal batzordeari eta
oraingoari eskerrak eman ziz-
kion, Alkartasuna biltokiaren
egitasmoa aurrera eramatea-
gatik.

Hamabi urteko ibilbidea

Alkartasuna elkartea orain
dela hamabi urte sortu zen, he-
rriko jubilatuen biltoki izateko.
Hiru urte lehenago udaletxe
berria egin zen eta Udaleko bu-
legoak bertara pasatu ziren.
Horrela, jubilatuek bere lehen
egoitza udaletxe zaharrean
izan zuten.

Egoitza horretan hamar urte
egon ziren. Izan ere, 2002ko ur-
tean Udalak udaletxe zaharra
eraitsi zuen eta Alkartasuna-
koek Grupo San Joseko eraikin
batetara joan ziren, lehen Ero-
s-kiko denda zegoen leku bere-
an. Han bi urte egon dira eta
orain egoitza berri eta dotorea
dute.

Jubilatuen biltoki berria San
Juan kalean kokatzen da, sei-
garren zenbakian. 222 metro
karratu ditu eta taberna-kafe-
tegia duen gelaz aparte, beste
hiru gela ditu erabilera ezber-
dinetarako. Zerbitzu bereziak
ditu ere, edadetu jendearen-
tzako prestatuak. Oso gustura
daude Alkartasunako egoit-
za berriak dituen erosotasu-
nekins. «Zoragarri gelditu da»,
erantzuten du Odriozola lehen-
dakarriak biltokiaren galdetzean.

Urte bukaera arte taberna-
kafetegi zerbitzua izango da,
orain arte egin den bezala bo-
luntario aritzen diren elkarteko
kideen lanarekin. Bost lagun
ibiltzen dira lan horretan eta
astero bati egokitzen zaio ar-
dura. Hain justu, elkarteko kide
den Jose Leon Larrarteri zu-
zendaritzatik aipamen berezia
egin zioten atzokoan, «beti
prest egoten da eta edozein
guztaz laguntzeko» azpim-
arratu zuten Odriozolak.

Egoitza berriak sukalde hor-
nitua eta biltokia ditu. Izan ere,
datorren urtetik aurrera egu-
neroko menua emateko asmoa
dago bertan. Udalak lehiaketa
jarriko du martxan sukaldea
eta tabernaren ustiaketa esle-
itzeko.

ANOETA ▶ HEZKUNTZA



Saioaren une batean, ikasle guztiak bertsoak abesten. I. GARCIA

Bertso saio berezia ikastolako ikasleentzat

Naroa Gerestak eta Amaia Agirrek bertso ikastaroan parte hartzera gonbidatu zituzten

I. GARCIA

Anoetako Ikastolan bertso gi-
roa izan zen atzokoan. Naroa
Geresta eta Amaia Agirre maila
ezberdinetako ikasleekin
egon ziren bertsoaren ingu-
ruan jolasean. Saio berezi hon-
en helburua ikastolan bert-
tan egingo den eta azaroan
hasiko den bertso ikastaroan
parte hartzeko grina sortzea
zen.

Ariketa ezberdinak egin zi-
tuzten. Horien artean bi ber-
tsolariek bukaera berdineko
hitzak ematea eskatu zitoten
ikasleei. Arbelan ipini eta Ge-

restak eta Agirrek bertso
bana botatzen zuten, gehiene-
tan entzunleengan barre alga-
rak sortaraziz.

Naroa Geresta izango da
irakaslea. «Aurrekoan bertso-
laritzara hurbildu ginen, ber-
tso ezberdinak ikusiz eta doi-
nuak ikasiz. Aurten bertsoak
sortzeari ekingo diogu», azal-
du du. Izena emateko urriaren
22a arte dago aukera. Hamar
saioko ikastaroa izango da eta
hamar euro kostako da. Bi
maila izango dira: LHko hiru-
garren mailatik seigarrenera,
batetik, eta DBHko lehenengo-
tik laugarrenera, bestetik.

ANOETA ▶ KIROLA

Odriozolak San Faustoko finala jokatu du gaur

Profesionaletan debuta egin du aurten eta oso gustura dago egindako denboraldiarekin

I. GARCIA

Denboraldia borobildu deza-
ke gaur gauean Igor Odriozola
zestalarriak. Castañosa II. arekin
batera Barronio eta Etxaniz bi-
kotearen aurka Durangoko
San Fausto Txapelketaren fi-
nala jokatu du. Hitzordua
22.30ean izango da eta lehe-
nengo hirugarren eta lauga-
rren postua erabakiko duen
partida jokatu du.

Pilotari anoetarra oso gu-
stura dago egin duen denbo-
raldiarekin. Ekainean profe-

sionaletan debuta egin zuen,
Jai Alai Sport enpresarekin,
eta emandako mailarekin era-
bat kontent ageri da. San
Fausto Txapelketarako hauta-
tzea «oso berri ona izan zen»,
azaltzen du Odriozolak, hogeita
bost pilotarietatik hamabi
hautatu baitziren, eta beraz
«finalera iristea sari handia
da». Gaurko partida jolasteko
lau norgehiagoka jokatu ditu
anoetarrek, hiru irabazi eta
bat galdu du, tantu bakarra-
rengatik. Ondoren finalerdian
35 eta 33 irabazi zuen.

Exkabazioak Lur mugiketak, eskollarak eta Garraioak

Mug.: 610 77 33 30
Telf.: 943 65 37 21
Telf./Fax: 943 65 00 79
Erotalde Pol 2-1, nabeta
20270 ANOETA

PERU, S. L.

ALEGIA ▶ MUSIKA

'Trapu zaharrak' astinduko dituzte Txintxarri Egunean

Joxe Mari Iparragirre abeslariak Ramon Batistari, trapu saltzaile alegiarrari, eskainitako kanta abestuko du Txintxarri abesbatzak Txintxarri Egunean

OLAIA ESKITZABEL

1 855. urtea. San Juan kaleko bederatzigarren zenbakian bizi zen Anjela Kerejeta Aizpurua alegiarrari; *Anjela Artaberonekoa* bezala zen ezaguna. Tolosako ostatu batetan egin zuen lana bere lehengusuari laguntzen. Egundatzen lan egiten zuen ostaturan Joxe Mari Iparragirre abeslari ezaguna sartu zen; Anjelarekin maitemindu zen berehala. Anjelak ere munduaren amaieraraino lagunduko ziola esan zion. Baita egin ere. Oso gaztea zela, arteen 17 urte inguru zituen, Argentinara joan zen bere maitalearekin; bertan ezkondu ziren; zortzi seme-alaba izan zituzten. Anjela Kerejeta 1920ean zendu zen.

Atzerrira joan aurretik, Alegiara joaten zen Iparragirre Anjela bisitatzera; bere kitarrarekin kantari ibiltzen zen kaleetan. Anjel Oartzabelek Alegiari buruz 1987an kaleratutako liburuan aipatzen duenez Iparragirrek honako kanta ezaguna abesten zion neskatilari: *Anjela nerea! gazte zerala diuzu, gaztea eta ederra zera zu.*

Gerora bere emazte izango zenari ezezik herriko trapu saltzailea zenari ere, Ramon Batistari, alegia, askotan abesten



Anjela Kerejeta alegiarrari, 60 urte inguru zituenean. HITZA

zion. Iparragirre Batistaren oso lagun egin zen eta gaur egun herrikoi bihurtu den *Trapu zaharrak* abestia egin eta eskaini zion berari.

Txintxarri Egunean

Alegiako Rikardo Intxausti txistulariak *Trapu zaharrak* abestiaren doinua gorde zuen partitura batetan. Hil baino bi urte lehenago (1971. urtean hil zen) Zumarragako Pascual Okariz bere lagun txistulariari eman zion informazioa. Horrek, era berean, Zumarragako apaiza denari, Antonio Rey-ri eman zion eta, azken horrek, Txintxarri abesbatzaren esku



Anjela Kerejeta eta Joxe Mari Iparragirre, zortzi seme-alabekin. HITZA

utzi du informazioa. Horien guztien laguntzaz osatu ahal izan dugu Anjelaren istorio hau.

Patxi Andion musikariak Euskal Herri osoan egin zuen ezagun *Trapu zaharrak* abestia; gerora, Oskorrik, Xabier Letek... ere abestu eta jaso dute beren disketan. Datorren igandean, urriaren 24ean, Txintxarri Eguna izango da eta Txintxarri abesbatzak abesti hori ekarriko du gogora. Anjel Unzu-k egin du abestiaren moldaketa.



Joxe Mari Iparragirre. HITZA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etxea 67 24 11.

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerbitzua: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste. J.M., Gernikako arbola, 3 (Tolosa), 65 10 40.
Gimeno A., Elbarren, 52, (Leitza), 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegiadea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

IKAZTEGIETA ▶ JAIK

Goizetik gauera bitarteko jai eguna antolatuko dute gaurko Uganen

Txirriindulari goerarekin hasi eta musikarekin amaituko dira auzoko jaiak

O.ESKITZABEL

Gaur hasi eta bukatuko dira Ikaztegieta Uganen auzoko jaiak. VI. Txirriindulari goerak jarriko emango die hasiera auzoko jaiak; eta Ikaztegieta dantza taldearen eta bertsolarien saioaren ondoren, bazkaltzeko bilduko dira auzotarrak: «Koadrila bakoitza bere bazkariak arduratuko da», azaldu dute antolatzaileek. Bazkaldun ondoren, haur jolasak egingo dituzte.

EGITARAUA ▶

12:00. VI. Txirriindulari Igoera.
Ondoren. Ikaztegieta dantzariak eta bertsolariak.
14:00. Bazkaria.
Arratsaldean. Haur jolasak.
Gauean. Santuiepekoak musika taldearen emanaldia.

Mendizabal lehengusuek eta, Santuiepekoak taldearen esku geratuko da musikaz jaiak girotzeko ardura.



lazio txirriindulari proba. HITZA

ALEGIALDEA ▶

Auto ilarak, Alegiako istripuaren ondorioz

O.ESKITZABEL

Tolosako norabidean, Alegia parean, N-430 kilometroan, kamioi batek artaziarena egin ondoren, errepidea moztu zuten. Auto ilara luzeak izan ziren; istripua 15:00etan gertatu zen eta arratsaldean zehar hamabi kilometroko auto iladak (Ordiziara bitartekoak) gertatu ziren. Errepide zahararen ere ilada luzeak egon ziren. Kamioilaria auto pribatu batean eraman zuten erietxera.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurra. Txakur bat (Lagun) galdu da Altzo inguruan. Inork ikusi badu, deitu: 658 706781/679 25 16 98.

SALGAI

Autoa. Mercedes Vito 110 CDI. Hiru urte ditu, egoera onean. Lo egiteko prestatura, berogailu eta guzti. Tfnoa.: 607 29 38 11.
Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosan; berriztatua eta altzariarekin. Garajea aukeran. Tfnoa.: 655 70 61 27.

LANA

Etxeko lanak. Pertsona euskaldun bat behar da etxeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko. Tfnoa.: 943 67 54 89/ 656 76 64 39.

BERROBI ▶ HIRIGINTZA

Berrikuntza ugari egiteko asmoa ondorengo urteetan

Eskola berria urtarrilean, herriko bi plazak datorren urteko udan eta Kultur Etxea eta gainerako eraikuntzak 2005 urtearen amaieran hasiko dira eraikitzen



Adosatua, bi bizitzako etxeak eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikiko dira denbora gutxian. I.T.



Kultur Etxe berria 2005 urtearen amaieran hasiko dira berritzen. I.T.

IÑIGO TERRADILLOS

Azken urteetan aldaketa handiak eta garrantzitsuak ari dira egiten Berrobin, eta urte gutxi buruan itxura berriarekin azalduko da herria.

Eskola berriaren obrekin datorren urteko urtarrilean hasi-

ko dira. Pasa den uztailen egin zen proiektu honen aurkezpen ekitaldia eta Koldo Arrese Hezkuntza Saileko Kontseilariordea izan zen bertan. Bestalde, eskola honek 150 haurrentzako izango du lekua, orainartekoarekin konparatuta alde nabarmena, beraz.

Herriko plazak berritu

Datorren urteko udan, berriz, herriko enparantzak berritze-ko lanetan hasiko dira; udal-terre aurrean dagoen plaza bate-tik, eta bestetik, Iriarte jatetxe-aren aurrean dagoena dira berrikuntza jasango dutenak. Azken honetan, lur azpiko aparkalekua egingo dute eta 30 autoentzatz izango du lekua. Plaza honetan dagoen jolasle-kuia ere berritu nahi da eta, era berean, bi plazak erabat berrit-zeaz gain, herriko espaloiak konpondu nahi dituzte.

Kultur Etxea

Udaletxeak Urrutia izeneko baserria erosi zuen duela gutxi, bertan Kultur Etxea egiteko helburuarekin. Zubi txikiaren ondoan dagoen baserri hau berriturik dago eta bertan proiektua bideratzeko leku aproposa dela adierazi dute udal-terreko ordezkariak.

Liburutegiak bezala, hainbat aukera emango dituen kultur gunea izango da goiko bi pisuetan eta behekoan herriko taberna jarri nahi dute.

Dena den, baserria eskuratu badute ere, datorren urteko abendurarte ez dira eraikin honen moldaketa lanekin hasiko.

Etxebizitza berriak

Herriaren ertz batean etxe ugari eraiki dituzte, eta oraindik



JON JAUREGI
ALKATEA

«Proiektu ugari dira eta aldaketa asko izango dira, baina guztiak ere herriaren onerako direla uste dugu»

ere, gehiago egiteko asmoa dago bertan, ermita dagoen pareraino luzatu nahi delarik.

Eraiki dituzten artean bi bizitzako etxeak, etxe atxikiak eta gazteentzako pisu tasatuak aurkitzen dira. Azken hauek herritarren esku geratu dira eta oso modu onean eskuratu ahal izan dituzte.

2005. urtearen amaieran hasiko dira eraikin berriei eta hauen artean, babes ofizialeko etxebizitzak, bi bizitzako etxeak, adosatua eta tasaturiko prezioa izango dutenak egongo dira.

Egin dituzten eta egingo dituzten artean, guztira, 100 etxebizitza berri altxatuko dira hemendik gutxira.

Biztanle kopuruak gora

Urte gutxiaren buruan 600 biztanle izatetik 900 inguru izatera pasatuko da Berrobi. Honek, noski, kanpotik jendea etorriko dela esan nahi du eta bertako gazteak herrian geratuko direla baita ere.

Jon Jauregi alkatea gustura dago aldaketa hauekin eta proiektu hauek onura ekarriko diola herriari aipatzen du. Bestalde, «bizitzera etortzen ari diren familiak herritarrekin segituan erlazionatzen dira eta herriko giroan sartzen saiatzen dira». «Herri lasaia da Berrobi bizitzeko, eta aurrera begira, biztanle kopuruak gora egin eta zertxobait aldatuko den arren, izaera mantentzea da kontua», dio alkateak.

IBARRA ▶

Eskalada ikastaroa antolatu dute

Ibarrako Haitzetanraju elkar-teak eskalada ikastaroa antolatu du, eta etzi dute haste-ko asmoa. Hasiberrientzat zuzendurik izango da eta 18 urtetik gorakoek hartu dezake-te parte. Astelehenean, 18:30etik 20:30era da ordua eta astearte eta ostegunean ikasiko dute eskalada. dato-rrin larunbatean, urriaren 23an Lizarrara, san Faustora irteera egingo dute. Izen-ematea eta informazio gehia- go 699 02 42 46 telefonoan.

IBARRA ▶

Soloarteren aurka jokatu du Ibarrak

Basaurin jokatu du Iba-rrak gaur 18:15ean, taulan beraiek baino postua hobea duten Soloarte taldearen aurka, oraindik ere buruan delarik pasa den larunbate-ko epaileen lana.

BERASTEGI ▶

Gaur pailazoan emanaldia ikusgai

Galtzaundi Euskara Taldeak pailazo ikuskizuna antolatu du biharko Berastegin. Tako- lo, Pirritx eta Porrotx izango dira, hain zuzen ere, *Poxpolin Marisorgin* emanaldia eskai- niko dutenak. Bihar 17:00- etan du ordua ikuskizun ho- nek, eta sarrerak aurrez Ure- pele elkartearen eta Galtzaundin bertan egongo dira edo emanaldia hasi au- rretik Berastegiko frontoian eta 4 euroren truke eros dai- tezke.

IBARRA ▶

Aiton-amonen eskolak astelehenetik

Aiton-amonen eta biloben arteko harremanetaz hitz egiteko bilgunea izan nahi du astelehenean, urriaren 18an hasiera emango zaion aitona- monen eskolak. Maria Jesus Uranga izango da eskola hauen arduradun eta hilean behin bilduko dira 10:30etik 12:00etara Ibarrako Kultur Etxean. Saioak irekiak izango dira.

NATURAL -
NATURALAK



- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala baserria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

LEITZA ▶ KIROLA

Jon Rekondo, Euskal Herriko 3. mailako Aizkolari Txapelketan

Gaur arratsaldean jokatu da Altsasun, herri hartan egiten ari diren ferietako jaialdien baitan; sei aizkolari ariko dira

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo leitzar gazteak, gaur arratsaldean Altsasun 18:00etatik aurrera jokatu den Euskal Herriko 3. Mailako Aizkolari Txapelketan parte hartuko du.

18 urte besterik ez dituen aizkolari honek, beste bost izango ditu ondoan, arratsaldean: lau gipuzkoar eta beste nafar bat, Telletxea Labaingoa. Guztiak ere, bera baino zaharxeagoak dira, 24-25 urte ingurukoak ere izanik. Egin beharreko lana, berriz, hiru enbor kana erdikoak eta beste bi, hirurogeina ontzakoak, ebakitzea izanen dute.

Denek gogor ekin beharko diote, luze-luze egin eta aizkorak hondoraino sartzei, izan ere bigarren mailara igotzea baitago jokoan. Lakuntzan jo-



Jon Rekondo, uda aldean, herriz herri aritzen da aizkoran. J. ASTIBIA

katu zuten duela hilabete eta erdi inguru txapelketa honetako kanporaketa eta hogeita bat parte-hartzailetatik, gaur ariko diren sei hauek sailkatu ziren finala jokatzeko. Gaurkoan txapela eskuratzen duena, zuzenean igoko da mailaz. Hurren-

go lekuetan geratzen direnek berriz, bigarren maila horretan bajarik balego bakarria izanen lukete aukera.

Garaipena eskuratzeak, bestalde, hurrengo denboraldian saio gehiago izateko aukera ere eskaintzen du.

JON REKONDO ▶ AIZKOLARIA

«Beste nonbait egin behar da lana, ez dago honetatik bizitzerik»

Gaur jokatu den txapelketaz ez ezik, bere ibilbideaz ere hitz egin dugu Jon Rekondorekin.

Asko prestatu al zara?

Udaran erakustaldi batzuk egin ditut eta orain, sailkapenaz geroztik, astean bitan egin ditut saioak.

Zeinek laguntzen dizu?

Aitak eta gero, Jaunarenak ere asko.

Eta zer itxaropen duzu?

Arria Va da faboritua, argi. Honek hutsik egiten ez badu... Lakuntzan, gainerako guztiok baino minutu bat lehenago ebaki zituen egurrak. Baina, saiatuko naiz ahalik eta lekuri hoberenean gelditzen, lekuen arabera, igotzea ere lortu baitaiteke.

Bestela, apusturik eta jokatu izan duzu?

Ez. Oraingo, txapelketak egiten ditut. Nafarroako 3. Mailakoa irabazi nuen eta orain 2. mailan jokatu dut eta herriz herri ibiltzen gara. Gerora ikusiko dugu noraino iristen ga-



JAIONE ASTIBIA

ren eta horren arabera erabakiko dugu.

Badago zaletasunik herrian?

Bai. Gutxi aritzen gara, baina herriko jendea joaten da gure saioak ikustera.

Aizkora lanbide izan daiteke?

Ez. Beste nonbait egin behar da lana eta gero, erakustaldiak egin, galtzen ez ateratzeko. Enborren gastuak eta, denak gure poltsikotik ordaintzen ditugu. Ez, ez dago honetatik bizitzerik. ◀

LEITZA ▶ UDALA

012 infolokal zerbitzuari buruz datuak eman ditu

Azken hiruhilabetekoan izandako erabilpenaz

J. ASTIBIA

Leitzako Udalak maiatzaren 17az geroztik herritarrei arreta eskaintzeko kontratatu zuen 012 infolokal delako zerbitzuak, azken hiruhilabeteko erabilpenari buruzko datuak eman ditu ezagutzera, udal-idazkaritzatik bertatik jakitera eman dutenez.

Zerbitzu honen bidez herritarrek, hainbat paper-lan, edozein motatako informazio eskera eta baita oharpen, kexu

edota iradokizunak ere egin ditzakete eta hain zuzen ere horien inguruko estatistika datuak eman dituzte ezagutzera.

Besteak beste, zerbitzu hau eskaintzen duten 26 erakundetatik 12.880 dei jaso dituztela dio txostenak, hauetatik 35 dira Leitzatik egindakoak.

Edozein moduz berrikuntzak ere erantsi dituzte Leitzako eskariei jarraituz, hala nola ur-kontagailuen irakurketaren ardura eta zabor handiak bilzteko eskaerak jasotzea.

LEITZA ▶ GAIA

Kristina Urrutia kazetaria, HITZAko zutabegile

J. ASTIBIA

Asteburu honetan hasita Kristina Urrutia kazetariak, *Uzturrerik* zutabea idatziko du, sei astetik behineko maiztasunaz, eskualdeko HITZA hau banatzen den eremuko beste hainbat kolaboratzaileekin tartekatuz.

Gaztea izan arren, kazetari honen ibilbidea oparoa da guztiz, Leioan ikasketak burutu zituenetik, lanean ari baita geratu gabe. Irratian hasi bazen ere, Euskal Telebistako



Kristina Urrutia J. ASTIBIA

Bertatik Bertara saioan egin zen ezagun eta denborarik gehien ere bertan eman zuen. Geroztik, *Kuxkuxeroak* saioan produkzio-lanetan aritu ondoren, *Vaya semanitan* ari da, aktualitateko gaiet buruzko bideoak egiten.

Egunkari batean, maiztasun batekin, idaztea esperientzia berria izanen dela argitu digu.

TURISMOA ▶

Plazaolako bulegoetan, ordutegia aldatu dute

J. ASTIBIA

Negua heldu dela eta, Plazaola Pazuergoak Lekunberrin dituen bulegoetan, Jendearen harrerarako ordutegia aldatu dute. Hurrengo hiruhilabetekoan, asteartetik ostirala bitartean, 10:00etatik 17:00-etara irekiko dute; larunbat eta jaietan berriz, 14:00ak arte bakarria.

Bide batez, egoitza hartan bertan inguru honetako produktuen salmenta ere egiten dutela eman dute jakitera.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 16a, larunbata ▶ II. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzera

13

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzolaeta, Aduna, Alburuz, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola, Arceña, Balarin, Belduntza, Berastegi, Etxuan, Herriak, Ibarra, Irada, Lantada, Leizorua, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Vilabona, Zuzurki

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurerria, Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzo. Bihar Jubilatuta Eguna: 12:30ean, meza nagusia; ondoren Artea dantza taldea eta Mikel Mendizabal eta Jon Martin bertsolariak; Arandia jatekxan bazkaria; ondoren Xafre eta Zaharra trikitilariak.

Tolosa. Odol Emaileen elkartearen odol-bankua izango da etzi Kultur Etxean 18:30etik 20:30era.

Tolosa. Xake Elkarteak xakean jokatzeko gonbitea luzatu du. Bihar 11:00etatik aurrera plaza Berria 1eko egoitza.

MUSIKA

Tolosa. Musika Bandaren kontzertua 20:00etan plaza Berrian. Euskal Herriko eta kanpoko doinuak.

KULTUR ASTEA

Tolosa (San Esteban). Alborraren bila eta mus txapelketa 16:00etan, haur jolasak 16:30ean, buruhandiak 18:00etan, txokolatada 19:00etan, Atila y los Unos 24:00etan eta ondoren DJ Jawatak.

ZINEMA

Tolosa. Guillermo del Tororen *Hellboy*. Leidor zinemaren 19:30ean eta 22:30ean.

Euskal prentsa sustatzen

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ HITZA eta 'Berria'-ren eskaintza bereziaz baliatzen hasi dira dozenaka lagun eskualdean; Tolosako Elurra taberna, besteak beste

ERREDAKZIOA

Duela gutxi hasi zen kanpaina lehen fruituak ematen hasi da. HITZAKO harpidedune *Berriaren* harpidetza merkeago eta hilabetez doan jasotzeko aukera dute. Informazioa buzoneatu ondoren, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN harpidedunei deika ari zaizkie —oraingoz Tolosan eta Ibarra, ondoren beste herrietan hasiko dira— eta lehen emaitzak ari dira lortzen.

Berriaren dozenaka harpide berri egin dira orain arte. Euskal prentsa bultzatu eta mundu osoko berriak egunero etxean euskaraz jasotzeko aukera izango dute hemendik aurrera.

Harpide berri horien artean dago Tolosako Elurra taberna. «Tarteka hartzen genuen *Berria* eta tabernara etortzen zen jendeak gustura irakurtzen zuela ikusten genuen. Orain eskaintza hau aprobetxatuz harpidedun egin gara eta egunero izango dugu tabernan», adierazi dio HITZARI Elurra tabernako Agustin Altamirak.

Horrelako taberna, denda eta kontsultetan, bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko aukera da *Berria* izatea. Beste egun-



Elurra tabernako Agustin Altamira, taberna aurrean, Korreo kalean. J.SAIZAR

kari eta aldizkariekin batera, euskarazko prentsa izatea.

Norbanakoez ere badute eskaintza hau aprobetxatzeko aukera, noski. Eta deiaren zain egon gabe, 943 30 43 46 telefonora deituz egin daitezke harpidedun.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iker Garmendia Ruiz de Egilaz (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Xabier Aparicio (Tolosa). Atzo 8 urte. Zorionak ebeko guztien partetik.



URTE ASKOAN
Irati Calvo Agirrezabala (Tolosa). Gaur 2 urte. Zorionak aitaboto eta amabotoen partetik.



URTE ASKOAN
Iker Larrañaga Luloaga (Ikaztegieta). Gaur 7 urte. Familiaren partetik ondo pada.

HITZA,
zorion agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behean
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argozkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

AGURRAK ▶



Esteban Malbadi.

Zure orrazi eta guraize / beti eskuak bete lan garbia eta gardena zinen / ispilu baten tankeran, goxoa berriz horren goxorik / ez dakit izan ote dan, hostoen gisan isil-isilik / zerurantzaz zoaz hegan egin diguzun guztiagatik / eskerrik asko Esteban.



Antonio Zubiaurre (Alkiza).

Zure herriari eskaini dizkizun gauza batzuen artean, eskolari emandako arreta eta borondate ona izan da. Horrengatik herriko eskolatik agur bero bat bidaltzen diguzu izarretatik. Adiorik ez, gero arte baizik. Esker onez. Eskolako guraso, haur eta irakasleak.

